



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2017/04/26

Veracruzeko Estaduko Kongresuaren bisita

Ana Otadui Batzar Nagusietako presidenteak Veracruzeko Estaduko Kongresuko ordezkariak jaso dau gaur Gernikan. Ordezkariak, Eusko Legebiltzarragaz sinergiak konpartitzeko lankidetzarako akordioa dala eta dago Euskadin. Mexikoko batzarretako Mahaiko ordezkariak María Elisa Manterola presidenteak, Dulce María García presidenteordeak eta Regina Vázquez idazkariak osatzen dabe, eta Bakartxo Tejeria Eusko Legebiltzarreko presidentek lagunduta heldu da Gernikako Batzarretxera, Gernikako Bonbardaketaren 80. urteurrena gogorarazoteko ekitaldietan parte hartu ostean

Mexikoko ordezkariak txistuz jotako “Agur Jaunak” entzunez jaso dau harrerea Bizkaiko Batzarretako eskilaretan, errespetu eta harrera sinbolo moduan. Txistulariek eta Batzarretako presidentek lagunduta, konbidauak Batzarretako egoitza bisitatu dabe, eta horren ostean argazkiak atera ditue Gernikako Arbola Zaharraren eta Haretx gaztearen ondoan.

Ahaldun Nagusiek eta Lehendakariak euren zina egiten daben leku berean, Veracruzeko ordezkariak dantzari bikote baten omenaldia jaso dabe, ohorezko “aurrekuagaz”, eta horren ostean bisita gidaua egin dabe Batzarretxe barrura (osoko bilkuren aretoa, Leiarpeko aretoa-Museoa eta artxibategia-liburutegia), eta bukatzeko presidentearen bulegora joan dira, Batzarretxeko Ohorezko Liburuan sinatzeko eta mezu bat idazteko.

Izaera instituzionaleko bisita esanguratsuetan ohikoa dan moduan, Batzar Nagusietako presidentek, euskal eskubide historikoen berezitasuna azaltzen dauen “La Foralidad” liburuaren ale bat oparitu deutso Veracruzeko Kongresuko ordezkariari.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
26/04/2017

Visita del Congreso del Estado de Veracruz

La presidenta de las Juntas Generales, Ana Otadui ha recibido hoy en Gernika a una delegación del Congreso del Estado de Veracruz que está en Euskadi en el marco de un acuerdo de colaboración con el Parlamento Vasco para compartir sinergias. La delegación de la Mesa del parlamento mejicano estaba integrada por su presidenta María Elisa Manterola, la vicepresidenta Dulce María García y la secretaria Regina Vázquez, quienes han llegado a la Casa de Juntas de Gernika acompañadas por la presidenta del Parlamento vasco, Bakartxo Tejeria, tras asistir a los actos conmemorativos del 80 aniversario del bombardeo de Gernika.

La delegación mejinaca ha sido recibida en la misma escalinata del parlamento vizcaíno con los toques al txistu del “Agur Jaunak”, símbolo de respeto y acogida. Arropados por los txistularis y la presidenta de la Cámara, los invitados han paseado por la sede parlamentaria para inmortalizarse junto al Árbol Viejo y al joven Roble de Gernika.

En el mismo lugar donde juran Diputados Generales y Lehendakaris, los visitantes han sido homenajeados por una pareja de dantzaris con un “aurreku” de honor, a lo que ha seguido después una visita guiada al interior de la Casa de Juntas (salón de plenos, sala de la Vidriera-Museo y archivo-biblioteca), para terminar en el despacho presidencial con la firma y escritura de un mensaje en el Libro de Honor de la Casa de Juntas.

Como viene siendo habitual en las visitas significativas de carácter institucional, la Presidenta de Juntas ha obsequiado a la delegación del Congreso de Veracruz con un ejemplar del libro “La Foralidad” donde se explica la singularidad de los derechos históricos vascos.